

AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



AZTIA ETA OKERRA

Lenago basobaltzeko piztiak zoriontsu ta alkartuta bizi ziran. Dortokeak lukiaren abian egiten eban lo, artatxoriak bere abia auntzaren adarretan egiten eban eta leoinabarra pozik joaten zan ibiltera basauntzagaz.

Baiña zoritxarreko egun baten azti zur eta oker bat igaro zan euren artetik.

—Bai! Bai! Pizti oneik pozik bizi dira —esan eban bere artean— Orrek iguindu egiten nau!

Urreratu zan aztia leoinabarragana eta esan eutson:

—Egunon leoinabar jauna! Barruan daukadan gurari bat agertu gura dautzut zuri!

—Esan! —erantzun eban pizti katuantzekoak basauntza egokiro alboratuta.

—Zuek zergaitik ez dozue gura —esan eban basauntzak— nik zuek esaten zabilzena entzutea?

—Isilleko gauzak isillekoak dira —esan eban aztiak— Eta leoinabarragaz bakarrik egon zanean esan eutson:

—Ez dakizu zeu zarala basobaltzeko piztien artean zorientsuena? Zure giarrak, zure erpak, zure indarra naikoa dira jatordu aundi batzuk gertatzeko.

—Ez jat inoz burura etorri olakorik —erantzun eban leoinabarrak— Oraintxe jakingo dot ori egia dan.

Biurtu zan basauntzarengana eta esan eutson:

—Basobaltzera nigaz ba'zatoz, isilpekoaren jakitun egingo zaitut.

Baiña inor ez egoala begira ikusi ebanean, piztiari samatik eldu eutson eta jan egin eban.

Bitartean aztia beste piztiai mezu bardiña zabaltzen ebillan eta guztiak sinistu eben besteak baiño sendoagoak zirala eta ugazaba izatea nai eben.

Ordutik aurrera basobalz aundi ta zabaletan piztiak ez ziran alkartzen eguneko jazokizunak alkarrari esateko, alkarren aurka gudak egiteko baiño. Aztia zan irabazle urten ebana eta onek geuaro aurkitzen ebazan pizti illak.

Baiña an alboko abian egoan leoiak zuzmo txarra artu eban.

—Ia! Zer jazoten da emen? —esan eban sorbaldako narrua konpontzen ebala.

—Piztiak alkar ilten dabiltz, guztiak agindu nai dabelako —erantzun eban saguak muzturra luzatuz.

—Ez dagoz txarrak orreik! —esan eban leoiak orroaka— Neu ez naz ba pizti guztien erregea?

—Zer nai dozu ba? Azti okerrak iruzurtu dauz! —esan eban saguak.

Ori entzun ebanean, asarratu zan leioa, egin eban jauzia aztiaren aurka eta zigorkada bategaz erail eban. Gero batu ebazan pizti guztiak eta berbaldi garratza egin eutsen eurak barrero bideratzeko.

Orduan zabaldu zan baso-baltzean esaldi au: Ez jakiñak goratu eta iruzurtu egiten dauzana, guztien kalte-egille da eta bere buruari be kalte egiten dautso.

✠ OLAZAR´tar Martin´ek